



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko abenduaren 21a

121. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzeko lan-taldearen txostena. Hezkuntza Batzordeak onetsia (2. or.).
- Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Moderna Fundazioaren Patronatuko bost kideak hautatzeko arauak (8. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzeke lan-taldearen txostena

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko 113.1 artikuluan xedatua betez agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzeke lan-taldearen txostena, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak 2010eko abenduaren 17an onetsia.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzeke lan-taldearen txostena

Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzeke lan-taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 55.2 artikuluan eta lan-taldea sortzeke erabakiko 3. puntuan xedatua betez, Parlamentuko Mahaiari igorri dio ondoko

TXOSTENA

I. AURREKARIAK

1. 2009ko ekainaren 9an, Hezkuntza Batzordeak lan-talde bat sortzea erabaki zuen, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak eta Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak proposatuta, Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzeke.

2. Lan-taldea 2009ko ekainaren 30ean eratu zen, eta ondoko kideak izan ditu, Legebiltzarreko parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek izendatuta: Carmen María González García andrea (UPN), María Luisa Mangado Cortes andrea (NABAI), María Victoria Arraiza Zorzano andrea (SPN), José Andrés Burguete Torres jauna (Convergencia de Demócratas de Navarra) eta

Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB). Legebiltzarreko legelari Silvia Doménech Alegre andrea jardun da lan-taldeari laguntza ematen.

Lan-taldea eratzeko bilkuran María Victoria Arraiza Zorzano andrea hautatu zen lehendakari, eta barne funtzionamendurako arauak onetsi ziren.

3. Lan-taldean ondokoek parte hartu dute: Nafarroako hezkuntza erkidegoa; Nafarroako Eskola Kontseilua; Nafarroako Hezkuntza Administrazioa; Hezkuntzako Goi Ikuskaritza; Udal Administrazioa; hezkuntzako sindikatuak; zuzendarien elkarteak; arte-, musika-, antzerki-, dantza-irakaskuntzako ordezkariak, arte eta lanbide eskolak, irakasleak eta gurasoen elkarteak.

Lan-taldean agerraldia egin dute ondoko adituek eta arloko eragileek —eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartzeagatik eta emandako laguntza-erengatik—:

– Pedro González jauna. Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusia.

– Jesús Javier Marcotegui Ros jauna. Nafarroako Parlamentuko lehendakariordea.

– Guillermo Herrero jauna. Hezkuntzako Goi Ikuskaritzako zuzendaria.

– Pedro Rascón Macias jauna. Herrikoa (CEAPA) elkarteko ordezkaria.

– Alfonso Aparicio jauna eta José Javier Solabre Heras jauna. CONCAParen ordezkariak.

– Néstor Martínez jauna. Sortzeneko ordezkaria.

– Marino Barásoain jauna. Sanitaria BHiko zuzendaria.

– Luis Javier del Portillo Basterra jauna. Donapea BHiko zuzendaria.

- Juan Carlos Ciria Fadrique jauna. Tuterako ETI BHko zuzendaria.
 - José Jorge Lanchas Rivero jauna. Iruñeko Salestarrak.
 - Javier Ramos jauna eta Asier Peláez jauna. Nafarroako musika eskoletako koordinatzaileak.
 - Julio Escuriaz jauna. Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionaleko zuzendaria.
 - Carmen Arbizu Goñi andrea. "Pablo Sarasate" Goi mailako Musika Kontserbatorioko zuzendaria.
 - F. Javier Mangado jauna. ADI-Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Institutu Publikoetako zuzendarien elkarteko lehendakaria.
 - Juan Carlos Turumbay jauna. ADIPNA-Nafarroako gainontzeko eredueta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako zuzendarien elkarteko lehendakaria.
 - Iñaki Andueza jauna. NIZE-D eredueta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako zuzendarien elkartea.
 - Fernando Carbajo jauna. Félix Urabaien Helduen Irakaskuntzako Institutuko zuzendaria.
 - Jaime Malón jauna. "José M^a Iribarren" Helduen Irakaskuntzako ikastetxeetako zuzendaria.
 - Patxi Larrea jauna eta Emi Ecay andrea. Nafarroako Antzerki Eskola.
 - Ana Moreno andrea eta Cristina Álvarez andrea. Nafarroako Dantza Eskola.
 - Belén Goñi Alegre andrea eta María Beunza andrea. Moderna Plana.
 - Teresa Ucar Echagüe andrea. Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria.
 - Pablo Carpio jauna, Laura Sanzol andrea eta Pilar López andrea. SEPNA sindikatua.
 - Alejandro Gastaminza jauna. UGT sindikatua (irakaskuntza itundua).
 - José Miguel Gastón Aguas jauna. STEE-EILAS sindikatua.
 - Yolanda Salinas Cancel andrea. UGT sindikatua (irakaskuntza publikoa).
 - José Elizalde jauna. CCOO sindikatua.
 - Juan Carlos Laboreo jauna eta Arantxa Ayensa andrea. AFAPNA sindikatua.
 - Alberto Royo jauna. APS sindikatua.
 - Ander Pascual jauna. ELA sindikatua.
 - Esperanza Iriarte andrea. LAB sindikatua.
 - Julio Lafuente jauna. Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorea.
 - Izaskun Arratibel andrea, Pello Mariñelarena jauna eta Iñaki Etxezarreta jauna. Nafarroako Ikastolen Federazioa.
 - Ignacio Iraizoz Zubeldía jauna eta Agustín Ortiz jauna.- FERRE.
 - Francisco José Flores Pérez jauna. San Cernin Kooperatiba.
 - Blanca Idoate andrea, Sofía de Esteban andrea, Sonia Viader andrea, Katixa Castellano andrea eta Magdalena Dearriba andrea. Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Komitea.
 - Ricardo Hernández jauna. Gazkalo.
 - Miguel Ángel Zubiría jauna, Ignacio Orbitarte jauna eta Cristina Irisarri jauna. Sakanako ordezkariek.
 - Ana Isabel Corcín Berdonces andrea. Corellako Arte eta Lanbide Eskolako zuzendaria.
 - Rosa García andrea. Iruñeko Arte eta Lanbide Eskolako zuzendaria.
 - Anabel Ávila Navarrete andrea, M.^a José Gallardón Echeverría andrea, Alberto Parrilla Mambrilla jauna, David Pérez de Obanos Cortaberría jauna, Fátima Pérez Corera andrea, Belén Rodríguez Bosch andrea eta Gregorio Ayape jauna. British eredueta Gurasoen Federazioa.
 - Xavier Ballarena Iturburua jauna, Nora Salvach Alegria andrea, Izaskun Salegui Rivera andrea, Javier Astrain Javat jauna eta Eneko Fernández Maritxalar jauna. Landa-eskoletako ordezkariek.
 - Izaskun Resano Apezarena andrea eta Cielo Astiz Lacunza andrea. Iruñeko eta Nafarroako Udalen Haur Eskoletako ordezkariek.
 - Javier Casalí Sarasibar jauna eta David Guindano jauna.
 - Eugenia Echarren andrea eta Alfonso Echeverría jauna.
 - Arturo Goidaracena Asa jauna.
- Agerraldia egin dutenek dokumentazioa ekarri dute, eta lan-taldeak behar bezala aztertu du dokumentazio hori.
4. Zenbait bilera egin ondoren, lan-taldeak honako txosten hau aho batez onetsi du, 2010eko azaroaren 26an eginiko bileran. Nafarroa Bai par-

lamentu-taldeko ordezkariak boto partikularra eman du.

5. Azkenik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 55.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lan-taldeak erabaki zuen Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea lan-taldeak bere lana amaitu duela, Mahaiak Hezkuntza Batzordeari dei egin ziezaion txostena eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

II. ALDEZ AURREKO HAUSNARKETAK

Lan-talde honen alderdirik azpimarragarrienetako bat izan da hezkuntza-erkidego osoak erakutsitako esker ona, zabalik aurkitu dituztelako Parlamentuaren ateak hezkuntza-sistemari buruz dituzten kezka, proposamenak eta hausnarketak azaltzeko. Deialdi zabala izan da, hezkuntzan murgildutako sektore guztiek parte hartu baitute. Hasi era ona, gure ustez, gizarteak eta hezkuntza-erkidego osoak behar duten egonkortasuna izan dezan Nafarroako hezkuntza-sistemak, gorabehera politikoen menpe egonen ez den egonkortasuna, gobernuan dagoen alderdia edo alderdiak zein ere diren.

Parte-hartzaileek, oro har, begi onez ikusi dituzte Hezkuntzari buruzko Lege proposamena eta Plan Estrategikoa, eta kritikak eta eskariak egin ahal izan dituzte, nor bere ikuspegitik eta hezkuntza-sistemaren barruan duen kokalekutik. Parte-hartzaile batzuek adierazi zuten bere ekarpenak foru legean jasoko zirelako esperantza zutela.

Esan genezake lan-talde hau, oro har, hezkuntzak Parlamentuan toki garrantzitsu bat hartu dueneko denbora bat izan dela, zeinetan Hezkuntza Batzordeak aukera izan baitu Nafarroako hezkuntza-sistema hobetzeko proposamenak eta hausnarketak ezagutzeko, eta pentsatzeko ea zer bide hartu behar duen hezkuntzak XXI. mendean izanen dituen erronkei erantzuteko; izan ere, aldaketa handiak gertatuko dira mende honetan, eta globalizazioa, informazioaren teknologiak, berehalakotasuna, komunikazioa eta informazioa eskuragarri izatea, mugikortasuna nahiz jakintza eskuratzeko modua gizarteak aldatzen ari dira, eta eskolak berak betebeharrak berriei erantzun beharko die.

Zaila da egindako ekarpen guzti-guztiak jasotzea; horietako asko ekarpen zehatzak izan dira, eta, ezbairik gabe, garrantzi handikoak izan daitezke etorkizuneko garapenei begira edo ikastetxeetan plan eta programa berariazkoak egiteari begira. Lan-taldean, batez ere, hezkuntza-sistema hobetzeko proposamen, hausnarketa eta ideia ugari azaldu dira, ez liratekeenak baztertu behar, ezpada hausnarketarako baliatu. Horiek guztiak

Hezkuntza Departamentuari eta parte hartu duten erakundeei, ikastetxeei eta pertsonai igorriko zaizkie, nor bere gizarte-esparrutik gure sistemaren kalitatea hobetzen lagun dezan.

Parte hartu zuen talde batek eginiko ondoko hausnarketak ongi laburbiltzen ditu lan-taldearen xedea eta egindako lana:

Bi ekimen horiek aldi berean gertatzea –bata, lege proposamena, Parlamentukoa; bestea, Plan Estrategikoa, administratiboa– aukera aparta da Nafarroan hezkuntza-sistemari buruzko gutxieneko oinarriak proposatu, kontrastatu eta hitzartzeko, gizarteak hezkuntzari esleitzen dion eginkizuna bete dezan. Gure nahia da alderdi politikoei jakin dezaten ezberdinen arteko gutxienekoen eta, horrenbestez, egonkorren bidea, egiten. Etorkizuneko betekizunak dira, eta gutxieneko ezinbesteko bat da horiek adostea, baldin eta Nafarroaren beharrezko sozialei leialtasunez erantzun nahi badiegu eta etorkizunari arrakastaz erantzun nahi badiogu.

III. PROPOSAMEN ESANGURATSUENAK ETA ADOSTUAK

Ondotik nabarmenduko ditugu agerraldietan gehien errepikatu diren auziak, hezkuntza arloko plangintza egitean jarraitu beharko litzatekeen norabidearen adierazle direnak:

1. Aurrera egin behar da DBHko titulazioa denek lortzeko zereginean, bai eta prestakuntza 18 urtera bitarte jarraitzean ere; prestakuntza arloko helburu horiek helduengana ere hedatu behar dira, bizitzan zeharreko hezkuntzaren kontzeptua eragingarri egiteko. Helduen Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitatea helburu horretan sartzen dira.

2. Aukera berdintasuna helburu horien oinarri dago, eta, hortaz, lehentasuna izanen dute hori sendotzen laguntzen duten ekintzek: hezkuntza hedatzea, beken politika, aniztasunaren tratamendua, ikastetxeetako hobekuntzak, irakasleen prestakuntza...

3. Ekitatea, kalitatea eta bikaintasuna ikastetxeetan bateragarri egin beharreko kontzeptuak dira. Nafarroako ekitate-indize onak ditu, mantendu eta areagotu behar direnak, aurrera eginez kalitate-rantz eta bikaintasunerantz, herritar guztiek izan dezaten espazio erreal eta egoki bat beren gaitasun pertsonalak, hezkuntza arlokoak eta sozialak garatzeko.

4. Areagotu egin behar dira aniztasunari erantzuteko neurriak eta ikastetxeentzako baliabideak, haien beharrezkoen eta adierazlearen arabera hain

zuzen ere, eta definitu egin behar dira derrigorrezko irakaskuntzako oinarritzko konpetentziak eta ezinbesteko ikaskuntzak, arreta berezia jarrita horien ebaluazioan, irakaskuntza indibidualizatzeko ekintzetan eta tutoretza indartzean.

5. Irakasleen prestakuntza etengabeak arreta berezia merezi du, gizartearen eskakizunei erantzuteko: tutoretza, aniztasunari erantzutea, konpetentzien araberako ikaskuntza, informazioaren teknologiak, hizkuntzak edo ikastetxeetako zuzendaritza.

6. Aurrera egin behar da antolamenduaren arloan malguak diren eta inguruneari irekiak diren ikastetxeak taxutzeari dagokionez.

7. Aurrera egin behar da baliabideak kudeatzeko eraginkorrak eta zaluagoak diren ikastetxeen eredu berri bat lortzeari dagokionez, hala moduz non haien autonomiari esker hezkuntza arloko planak eta proiektuak burutu ahalko baitituzte, zuzendaritza eta kudeaketa eredu berri batekin. Horretarako:

a) Hezkuntza-proiektua ikastetxearen testuinguru kontuan hartuta eta hezkuntza-erkidegoaren parte-hartzearekin egiten da, bai eta proiektua garatzeko beharrezkoak diren baliabideekin ere.

b) Ikastetxeen zuzendaritza-eredu berri bat, berriazko prestakuntza exijituko duena, oinarri izanen duena lidergo berritzaile bat eta helburuen arabeko pizgarrien sistema baten ezarpena, egindako ekintzak justifikatu eta oinarrituko dituen, talde-lana sustatuko duena eta eskola-erkidegoko kide guztien erantzukidetasuna ezarriko duena, zuzendaritza berriaren erronkei aurre egiterakoan.

c) Ikastetxeen autonomia-eredu bat ezarriko da pedagogiaren, antolamenduaren eta kudeaketaren arloetan, ebaluazioari ezinbesteko eskakizuna den aldetik lotuko baitzaio.

d) Hezkuntza- eta irakasle-ekipo profesionalizatua, nork bere jarduketara-esparrutik abiatuta erantzun egokia ematen jakinen dietenak eskola-erkidegoak egindako eskariei.

e) Ikastetxe hauek ikuskaritza-eredu berri bat behar dute: ikastetxeak ebaluatuko dituen eta bere helburuak lortzeko behar duten aholkua ematen diona, behar duten informazioa emanez, finean, hezkuntza-erkidegoko eragileei (administrazioa, familiak, irakasleak, ikasleak eta zuzendaritza taldeak), eskola-errealitatearen ezaugarriak zehatzagoa izan dezaten.

8. Kontuan hartuko da eleaniztasuna, Nafarroako hezkuntza-sisteman jada ohikoak diren hizkun-

tza-ereduen arabera, eta ikastetxeetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sartuko dira, etorkizunean pentsatzen duen eskola batean ezinbesteko proiektu/jarduketak diren aldetik. Sistema informatikoen mantentze-lanetako arduradunaren figura ezarri behar da.

9. Irakasleen prestakuntza hobetu behar da, hala hasierakoa nola etengabea, kontuan hartuta gaur egungo erronkak, oinarritzko konpetentziak, hizkuntzak, informazioaren teknologiak eta lanmetodologia berriak, eta lanbide-sustapeneko neurriak hartu behar dira.

10. Eskolatzekoan ekitatez eta erantzukidetasunez jokatu da, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan ezarritako printzipioekin bat funts publikoen bidez finantzatzeko ikastetxe guztietan.

11. Hezkuntza-sistemari buruzko plangintza egitea administrazio publikoei dagokie. Ikastetxe pribatuek eta ikastetxe itunduek, sare publikoarekiko subsidiarioak diren aldetik, zerbitzu publiko hori ematen dute.

12. Orik 3 urtera bitarteko ikasleentzako hezkuntza-eskaintza handitu behar da, hezkuntza-ziklo horren unibertsalizazioa helburu.

13. Helduen irakaskuntza eta musika eskoletako prestakuntza mankomunatzeko aukera aztertu behar da.

14. Ikastetxe eleaniztunetan eta elebidunetan izandako esperientzien ebaluazioa egitea eta esperientzia horretan hasten diren ikastetxeei aholku ematea.

15. Lanbide Heziketaren eta Arte Irakaskuntzen esparruan (musika, dantza, antzerkia eta arte plastikoak) beken politika sendotzea, ikasketak horiek egiten jarraitu nahi duten ikasleek bere ibilbideari eutsi ahal izan diezaioten.

16. Legegintzaren arloan argi dago erregelamendu batzuk garatu behar direla, gaurkotuak eta ikastetxe horien ezaugarri berriazkoen arabera, ikastetxe horietan ematen diren irakaskuntzen arabera eta ikastetxe horietako ikasleen profilararen arabera.

17. "Educa" izeneko programak prozedura guztiak jaso behar ditu, akademikoak, langileen kudeaketari buruzkoak, ekonomikoak eta bestelakoak, irakaskuntza mota ezberdinei egokituak; izan ere, ikastetxe eredu bat baino gehiago dago: landa-eskolak, LHko ikastetxeak, arte irakaskuntzako ikastetxeak, hezkuntza bereziko ikastetxeak.

18. Unibertsitateak oinarri-oinarritzko eginkizuna du herritarren prestakuntzari eta ekonomianahiz produkzio-sistema modernizatzei begira.

Etorkizuneko irakasleek, izan ere, unibertsitatean jasotzen dute prestakuntza. Irakaskuntza eta ikerkuntza, baina baita berrikuntza eta ezagutzen transferentzia ere, ezinbestekoak dira gizartea modernizatzeko.

19. Unibertsitateko ikasketen nazioartekotzeak eta mugikortasunak beken eta laguntzen politika bat egotea exijitzen dute, aukera hori emanen diena hezkuntza-ibilbide hauek bururaino eraman nahi dituzten ikasle guztiei, ahaztu gabe beharrezkoa dela esfortzuekiko konpromisoa, goi mailako ikasketetan logikoa denez.

IV. BERARIAZKO ESPARRUEI BURUZKO PROPOSAMENAK

Arte irakaskuntzak

1. Arte irakaskuntzek jendea hezten dute, zeinak, hartara, arte-diziplinak baloratzerakoan eta gozatzerakoan irizpide eta ezagutza handiagoa lortzen baitu.

2. Musika-hezkuntzari izaera orokorrez ekin behar zaio, eta asmoak eta helburuak definitu behar dira Nafarroan musika-irakaskuntzei dagokienez. Ematen du beharrezkoa dela musika eskolen arteko komunikazioa hobetzea, haien hezkuntza-eskaintza goi mailako lanbide heziketako graduetara bideratu eta egituratzeko. Egokia izanen litzateke orobat udalek musikaren arloan ematen dituzten zerbitzuak mankomunatzeari.

3. Testuinguru horretan ematen du arrazoizkoa dela musika eskolak finantzatzeko politika berri-kustea, behar adina baliabide izan ditzaten, Nafarroako hezkuntza-sistemaren eskakizunekin bat.

4. Musika irakaskuntzetako irakasleen sarbidea, mugikortasuna, behin-behinekotasun handia eta prestakuntza, kezka-iturri dira esparru horretako profesionalentzat, batez ere goi mailan eta lanbide heziketan.

5. Zuzendaritza taldeen autonomia indartu behar da, musika-esparru ezberdinetan gailentzen diren profesionalen kontratazioa sustatze aldera, espezializazio ikastaroak eta eskolak eman ditzaten, bai eta kultura eta arte entitateekiko hitzarmenak ezartze aldera ere, ikasleei lan esparruko prestakuntza emateari begira.

6. Arte dramatikoaren arloari dagokionez, Nafarroako Antzerki Eskolak arte dramatikoaren prestakuntzan egiten duen lanean jarri da azpimarra (entitate hori Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura eta Turismo departamentuekin lankidetzan aritzen da). Arte eszenikoekin lotutako prestakuntza zikloak sartzearen aldeko hautua egiten da.

7. Dantzaren esparruan, ikasketen aitorten ofiziala egiteak erraztuko luke ikasleak arte irakaskuntzetan sartu ahal izatea, eta profesionaltasuna sustatuko litzateke hartara. Kontuan hartu behar da dantzak, lanbide gisa, beste lanbide batzuetara heltzea dakarrela: pedagogia, eszenografia, lumenteknia, diseinua, jantziak, eta abar. Arte eszenikoek bere baitan hartzen duten guztia.

8. Erkidegoak berak aurrerapausoak eman behar ditu dantza profesionalizatzeko aukerari dagokionez, talentu berriei irtenbideak emanez, legegintza-sistema egokituz eta gure garaiekin bat datorren hezkuntza-egitura bat eskainiz.

9. Lege-esparru berri batek aukera emanen lieke ikastetxeei ikasleen prestakuntzaren arabera curriculumak taxutzeko gaurko gizarteak eskatzen dituen alderdi profesionaletan.

Aniztasunari erantzutea eta hezkuntza inklusi-boa

1. Ekitateak eskatzen du eskola zinez inklusi-boa izatea, ikasle guztien aurrerabidea eta arrakasta erraztuko duten curriculum eta antolamenduarekin, nahiz eta ezgaitasunari lotutako premiak izan, jarrera-arazoak izan, gaitasun handia izan edo egoera sozial eta kultural behartsua izan.

2. Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa esparru interesgarria da irakaskuntza inklusiboan aurrera egiteko. Irakaskuntza inklusiboak eskuhartze programak jaso behar ditu Haur eta Lehen Hezkuntzatik aurrera, hezkuntza premien detekzio goiztiarretik abiatuta errefortzuak ezartzeko, hezkuntza premia zein ere den.

3. Aniztasunari emandako erantzuna estu lotu behar zaio irisgarritasun unibertsalari, halako moduz non hezkuntza maila guztiak, Lehen Hezkuntzatik Unibertsitate eta helduen hezkuntzaraino, denentzat irekita egon daitezen.

4. Aniztasunari erantzuteko programak taxutzeari, ikastetxeak, zein bere autonomiatik abiatuta, antolatu ahal izan daitezen eta ikastetxearen testuinguruari nahiz ikasleen eta sendien beharrezko neurriak hartu ahal izan ditzaten, curriculumaren eta antolamenduaren arloetan. Aniztasunari erantzuteko neurriak eta programak, ebaluazio positiboa izan dutenak eta ikasleen hezkuntza premiei arrakastaz erantzuteko balio izan dutenak, sendotzea.

5. Arriskuan dauden kolektiboek dagokienez, are gehiago sakondu behar da gizarte- eta hezkuntza-ikuspuntuan, ikasketen uzte goiztiarra saihesteko indartze programen bidez, ikasle guztien eskola-arrakastarako bidean aurrera eginez, gizar-

teratzeko eta laneratzeko beharrezkoak diren kompetentziak lortuz.

Landa-eskolak

1. Landa-eskolek zeharkako tratamendua behar dute, ikuspegi orokor bat, berezitasunak eta ezberdintasunak Nafarroako hezkuntza-sistema aberas-teko osagai gisa hartuko dituen. Giza baliabideak eta baliabide materialak eskola horien ezaugarri erreparatuta jarri behar dira, lehentasuna emanaz irakasleen egonkortasunari, bizilekua zein ere den ikasle guztien aukera berdintasunari erantzute aldera, desiragarria den bezala.

2. Landa-ikastetxeei baliabideen eta egonkortasunaren bidezko konpentsazioa eman beharko litzaieke; izan ere, berezitasunak berezitasun, ematen du egokia dela kasuan kasuko inguruabarretara egokitzea giza baliabideen kudeaketako eta administrazio-kudeaketako metodologia.

Lanbide Heziketa

1. Plangintzak eremuz eremukoa izan behar du, baliabide espezializatuak koordinatuta, eta orobat izan behar du orekatua, erdiesteko moduko helburuak ezarrita. Lanbide-prestakuntzaren beharriaren eta egoeraren azterketa sistematikoa egin behar da, eremuaren produkzioa sustatzeko eta beharriari hobeki egokitzeko.

2. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien bultzada. Garapen hori egiantan ahalbidetuko duten azpiegiturak sortzea. Zuntz optikoa eta abiadura handiko ekipo elektronikoak. Ikastetxean baino baldintza hobetan sartzen dira Interneten ikasleak etxean.

3. Zuzendaritza taldeek autonomia behar dute erabakiak hartzeko ikastetxearen prestakuntza-eskaintzari buruz, kudeaketa ekonomikoari buruz eta espezializazio ikastaroetan eta moduluetan ira-

kaskuntza emateko espezialista kualifikatuenak izate aldera ikastetxearen giza baliabideak planifikatzeari buruz.

4. Ikuskapen Zerbitzuarekiko, Antolamendu Zerbitzuarekiko, Plangintza Zerbitzuarekiko eta Lanbide Heziketarekiko harremana hobetzea: zerbitzu horiekiko koordinazioa hobetu eta areagotu behar da, ikastetxeko solaskide bakarraren bermearekin.

5. Lege-esparru berri batek aukera emanen lieke ikastetxeei ikasleen prestakuntzaren arabera curriculumak taxutzeko gaurko gizarteak eskatzen dituen alderdi profesionaletan.

6. Zuzendaritza taldeek autonomia handiagoa behar dute, enpresekin eta erakundeekin hitzarmenak ezartze aldera ikasleei lan munduan prestakuntza emateko.

Ikaskuntza bizitzan zehar

1. Gai honi buruzko aurkezpen ugari egin dira. Hor dira "José M^a Iribarren" Helduen Irakaskuntzako ikastetxearen, "Félix Urabayen" institutuaren, Lanbide Heziketako ikastetxeen, ETI BHIaren, Sanitaria BHIaren eta NUParen ekarpenak (NUPek Esperientziaren Ikasgela sendotu du eta Goi-mailako Hezkuntzako Europar Esparruko gradu berriak eta graduondoak eta masterrak aplikatu ditu), prestakuntza etengabearen beharriari begira garrantzitsuak direnak.

2. Arlo horretan, plataforma digitalak erabiltzeak etxetik nahiz lanetik sartzeko eta prestatzeko errazten du, eta malgua izateagatik eta helduen beharriari egokitzeko dituen aukerengatik bultzatu beharreko hezkuntza-espazio bat da.

Iruñean, 2010eko azaroaren 26an

Lan-taldeko lehendakaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Moderna Fundazioaren Patronatuko bost kideak hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak idazkia aurkeztu du, non Nafarroako Parlamentuari eskatzen baitzaio bost kide izenda ditzala Parlamentuaren izenean Moderna Fundazioaren Patronatuko kide izan daitezen, eta zerbitzu juridikoek txostena eman dute. Hori guztia ikusirik, Eledunaren Batzarrearekin bat etorritz eta Erregelamenduaren 37.1 artikuluko bederatzigarren eginkizunari jarraikiz, ondokoa ERABAKI DA:

Lehena. Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Moderna Fundazioaren Patronatuko bost kideak hautatzeko arauak onestea. Hona arau horiek:

1. Nafarroako Parlamentuak bost foru parlamentari hautatuko ditu Moderna Fundazioaren Patronatuko kide izan daitezen.

2. Parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek hautagai-zerrendak aurkeztu ahalko dituzte, bakarka edo taldean. Hautagai-zerrendak bost pertsonaz osatuta egonen dira; horietako hiru sexu batekoak izanen dira, eta beste biak beste sexukoa.

3. Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idatzi baten bidez aurkeztuko dituzte hautagaizak parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek, eta proposatutako hautagaien onarpena jaso beharko da idatzi horretan.

4. Parlamentu-taldeek edo foru parlamentarien elkarteek Patronatuko kide izateko hautagaiak aurkezteko epea 2010eko abenduaren 21eko 12:00etan bukatuko da.

5. Hautagaien zerrendak aurkezteko epea amaiturik, Mahaiak haiek aldarrikatuko ditu.

6. Patronatuko bost kideak Osoko Bilkuran eta isilpeko bozketaren bidez hautatuko dira.

7. Bozketa txartelen bidez eginen da, eta foru parlamentari bakoitzak, zenbat postu bete behar diren, beste horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelean.

8. Mahaiak boto-kontaketa egin eta boto gehien eskuratu dituzten bost hautagaiak hautatu direla aldarrikatuko du.

9. Berdinketarik badago eta horrek Parlamentuaren proposamenean eragiten badu, berdinketak boto kopuru berbera lortu dutenen arteko beste bozketa baten bidez ebatziko dira. Berdinketak bere horretan segitzen badu, hurrenez hurreneko bozketak eginen dira boto kopuru bera duten hautagaien artean, berdinketa desegin arte.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda